

**UDAL-BATZARRAK 2.002KO AZAROAREN 21EAN EGINDAKO OHIZ
KANPOKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

LEHENDAKARIA: Jose M^a Sarasola Goenaga

ZINEGOTZIAK:

Pedro M^a Peñagarikano Labaka
Miren Maite Aizpurua Etxeberria
Manuel Odriozola Iruretagoiena
Mikel Errazkin Agirrezabala
Rafael Uribarren Axpe
Mikel Zubillaga Galarraga
Jose Ignacio Otermin Garmendia
Jose Martin Uzkudun Agirre

IDAZKARIA:

Nerea Etxebarria Atutxa

AZTERGAIK:

- 1.-Alkatetzako dekretuen berri ematea 432 zenbaitik 445zenbakira, biak barne.
- 2.-Nerea Etxebarria Atutxa Anoetako Udaleko Idazkari Akzidentala izendatzeko Alkateak ebatzitako dekretua berrestea.
- 3.-Anoetako Arau Subsidiarioak A-11 Errota Eremuan aldatzeko Proiektua hasierako izaeraz onesteko proposamenak.
- 4.-Udal Ordenantza Fiskalen aldaketak hasierako izaeraz onestea.
- 5.- Jubilatuen Elkarteko diru eskaerari buruzko proposamenaren onarpena.

Anoetako Udaetxean, bi mila eta biko azaroaren hogeitabatean, arratsaldeko zazpi terdietan, Udal-Batzarra bildu da, Ohiz Kanpoko Bilkura egin asmoz JOSE MARIA SARASOLA GOENAGA Alkate jaunaren lehendakaritzapean, alboan aipaturiko zinegotziak dituela.

Nerea Etxebarria Atutxak, Udal honetan Idazkari Akzidentala bezala jardunean ari denak, denaren berri zinpean jasotzen du.

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK:

1.- Alkatetzako Dekretuen berri ematea 432 zenbakitik 445 zenbakira, biak barne.

Alkateak emandako ebazpenen berri ematen du, ebazpen horiek 2002.urteko 432 tik 445era bitartekoak izanik, biak barne.

Udalbatza jakitun geratzen da.

2.-Nerea Etxebarria Atutxa Anoetako Udaleko Idazkari Akzidentala izendatzeko Alkateak ebatzitako Dekretua berrestea.

Alkateak 2002ko azaroaren 11n Nerea Etxebarria Atutxa idazkari akzidentala izendatzeko ebatzitako dekretua berresteko proposatzen die udalbatzako zinegotziei.

Erabakia:

Udalbatzarrak ahobatez honako erabakia hartu du:

Alkateak 2002ko azaroaren 11n Nerea Etxebarria Atutxa idazkari akzidentala izendatzeko ebatzitako dekretua berrestea.

3.- Anoetako Arau Subsidiarioak A-11 Errota eremuen aldatzeko proiektua hasierako izaeraz onesteko proposamena.

Alkate jaunak gaia azaldu du. esanez Jesus Arratibel jaunak, PROMOVISA 2000 S.L.ren izenean, Udaleko arkitekto aholkulari eta idazkariak eginiko txostenetan eskaturiko aldaketak jasotzen dituen memoria aurkeztu duela eta Obra eta Hirigintza batzordean gaia ikusi ondoren hasierako onarpena ematea proposatzen duela.

Jose Ignacio Otermin, EAJ-PNV/EA taldeko bozeramaleak argi utzi nahi du beraien ustez errepidearentzako ematen den soluzioa ez dela egokiena eta nahiko arriskutsua dela. Gainera, ez dela konpondu herriko sarrera, errotonda bat egiea aurrikusia zegoela hor eta azkenean ez dela soluzio hori hartu. Emandako soluzioa ez zaiela gehiegi gustatzen esan du

Alkate jaunak hitza hartu du eta berari ere ez zaiola soluzio egokiena iruditzen dio, baina Diputazioak mahai gainean jarri duen irtenbidea hori dela.

Pedro Mari Peñagarikano Anoetako Sozialista Abertzaleak Taldeko zinegotzi jauna, alkateak esandakoarekin bat dator, gustatu ez zaiela gustatzen eurei ere baina hartu egin behar dela zeren Diputazioak emandako irtenbidea hori dela. .

Erabakia:

Udalbatzarrak ahobatez honako erabakia hartu du:

Lehenik: “ERROTA” A.11 eremuan Anoetako Arau Subsidiarioak aldatzeari hasierako onarpena ematea.

Bigarrenik: Aipaturiko aldaketa jendaurrean jartzea hilabete batean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta egunkarietan publikatuz, interesdunek eta herritarrek alegazioak egin ditzaten.

Hirugarrenik: Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide Sailari expedientea bidaltzea, txostena egin dezan.

Laugarrenik: Aldaketari behin behineko onarpena ematea alegazioak egon badira hauek jaso ondoren edota beti ere Errepide Sailak bere txostena eman ondoren.

Bostgarrenik:Espedientea Gipuzkoako Foru Aldundiko Hirigintz Sailera bidaltzea, honek behin betiko onarpena eman diezaion sei hilabeteko epean gehienez ere eta ondoren, aldaketaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatzea indarrean sartu dadin.

4.- Udal Ordenantza fiskalen aldaketak hasierako izaeraz onestea.

Alkate jaunak hitza hartu du eta Ogasun Batzordeak, onartuak izan daitezten, proposatzen dituen honako aldaketak aurkeztu ditu:

“TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN KUOTA EZARTZEKO FUNTSEZKOAK DIREN ELEMENTUAK ARAUTZEKO ORDENANTZA FISKALA

6. artikulua

1.- Ibilgailuari behin betiko baja ematen zaion kasuan, sujetu pasiboaren alde izango dira kuota hainbanatuak, eta, era berean, behin behineko likidazioan soberan ordaindutakoak, Zergaren sujetu pasiboari itzuliko zaizkie behin betiko baja eta ibilgailuaren matrikulazioari buruzko dokumentazio aurkezteko unean.

2.-Ibilgailuaren lapurketagatik erregistro publikoan aldi baterako baja ematen zaionean ere hainbanatuko da kuota.

ONDASUN HIGIEZINEI BURUZKO ZERGAREN KUOTAK FINKATZEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK ERREGULATUKO DITUEN ORDENANTZA FISKALA.

b)gainerako ondasun hiritarrentzat % 0.13

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREI BURUZKO ZERGAREN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEA.

VI. BONIFIKAZIOA

Etxebizitzetan igogailua jartzea arrazoi sozialengatik interes publikoko obra deklaratu denez, 10 urte baino gehiagoko etxebizitzetan igogailua instalatzearen kasuan %95 eko bonifikazioa izango dute

eskaera egiterakoan Udalarekin inolako zorrik edo betegabeko obligaziorik ez duten auzotarren komunitateek.

Auzotarren komunitateko kideren batek edo batzuek zorrik izanez gero, Osoko Bilkuraren esku utziko da bonifikazioa lortu ahal izatearen erabakia eta honen kopuruaren zehaztapena..

Bonifikazioa lortu ahal izateko, beti eskatu egin beharko da.

**UDAL JABETZAPEKO EDO ARDURALARITZAPEKO BIDEEN APROBETXAMENDU
BEREZIRAKO ARAUA**

9. artikulua

gutxiengo fiantza, edozein kasutan 600 eurotakoa izango da

**ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMIISTRATIBOAK
BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA.**

ERANSKINA

A-INTERESATUAK HORRELA ESKATURIK, UDAL ADMINISTRAZIOAK EDO UDAL
AGINTARIEK EMAN EDO AZTERTUKO DITUZTEN DOKUMENTUENGATKO TASAK.

a) Hirigintzari buruzko alde aurreko kontsulta.....100 Euro

b) Fotokopiak ale bakoitzeko:

1.- Alde bakoitzeko.....0.1 Euro

Bi aldetatik0.2 Euro

2.- A4 baino handiagoak.....0.2 Euro

c) Faxaren erabilpena:

1.- Estatu mailan:

- 1. orria.....3 Euro
- Hurrengoak.....Euro bat

2. Estatutik kanpo:

- Orriko.....2 Euro

B-AUTO-TAXI ETA GAINERAKO AKURAKO IBILGAILUEN LIZENTZIA EDO BAIMEN ADMINISTRATIBOA EMATEAGATIKO TASA

- a) Auto-taxien lehen lizentziak.....300 Euro
- b) Auto-turismoen lehen lizentziak.....300 Euro
- c) Dagoeneko emandako lizentzia batek babesturiko ibilg. ordezka..30E

C- HIRIGINTZ LIZENTZIAK EMATEAGATIKO TASA

Nekazal eta/edo abel ustiapenera destinatzen ez diren obretarako lizentziak; aurrekoantuen arabera;

- a) 600 euro arte.....10 Euro
- b) 601 eta 6.000 euro bitarteko aurrekontua dutenak.....40 Euro
- c) 6.001 eta 30.000 euro bitarteko aurrekontua dutenak..... 200 Euro
- d) 30.001 eta 90.000 euro bitarteko aurrekontua dutenak.....400 Euro
- e) 90.001 eta 300.000 euro bitarteko aurrekontua dutenak.....625Euro
- f) 300.001 eurotik goragoko aurrekontua dutenak.....2.000 Euro
- g) Lehen erabileraren lizentzia:
 - Etxebizitza bakoitzeko.....40 Euro
 - Merkatal lokal bakoitzeko.....80 Euro
 - 50 m²-tik gorako hedadura duen industri bakoitzeko.....400 Euro
- h) Lurzatiketa eta birzatiketa, m².....0.25 euro
- i) Lerrokadurak fatxadaren m. lineal bakoitzeko.....4.5 euro
- j) Goian adierazitako edozein lizentziaren luzapen eta transmisioek, kuota likidoaren zenbatekoaren ehuneko hainbat.....% 30
 - k) Ekimen pribatuaren bidez sustatutako Udalaren Iharduera: Birpartzelazio proiektuak, Xehekapen Azterlanak, Plan Partzialak, Barne Erreformatarako Plan Bereziak,

Urbanizazio proiektuak eta oro har, beste zenbait planeamendu figura izapidatzeagatik:.....1.500 Euro

D- ESTABLEZIMENDUEN IREKITZE-LIZENTZIA EMATEAGATIKO TASA

- a) Sailkatutako Jardueraz izapidatuta daukaten dendak.....400euro
b)Sailkatutako Jardueraz izapidatuta ez daukaten dendak.....300euro
c)Sailkatutako jardueraz izapidatuta daukaten zerbitzuak..... 500 euro
d)Sailkatutako Jardueraz, izapidatuta ez daukaten zerbitzuak.....350 euro
e)Sailkatutako Jardueraz, izapidatuta daukaten industriak.....600 euro
f) Sailkatutako Jarsueraz izapidatuta ez daukaten industriak.....500 euro
g)Lokalen eskualdaketa edo tit. aldaketa, baldin ihard. berarekin jarraitzen badute eta lizentzia ° indarreango legeriaren araberako badute.....200 euro

E. UDAL HILERRIAN ZERBITZUAK ETA EMAKIDAK ESKAINTZEAGATIKO TASA

- a)Ehorzketak.....125 euro
b) Desehorzketak.....125 euro
c)Nitxoen emakidagatik:
 10 urteko epean.....150 euro
d)haurren nitxoen emakida:
 10 urteko epean.....75 euro
e)Nitxoen emakida luzatzeagatik:
 10 urteko epean.....225 euro
f) haurren nitxoen emakida luzatzeagatik
 10 urteko epean.....100 euro

F. UR HORNIDURAGATIKO TASA

- a) Etxe eta lokaletarako ur hornidura:
– Hiruhilekoan har daitekeen gutxienezkoa hiruhilekoan 45m³. hartzeko eskubidea izanik.....10.8 euro
– Hiruhilekoan 45m³. baino gehiago 100m³. Arte.....0,30 euro/m³
– Hiruhilekoan 100m³. baino gehiago.....0,60 euro
b)Dendetarako ur hornidura:

1.-Beren funtzionamendurako ura derrigorrez behar duten komertzioak (arrandegiak, tabernak, ileapaindegiak,...etab)

Hiruhilekoan har daitekeen gutxieneroa hiruhilekoan 45m³. hartzeko eskubidea izanik..21.6 euro

Hiruhilekoan 45m³. baino gehiago.....0,60 euro/m³

2.-Gainerako komertzioak:

- Hiruhilekoan har daitekeen gutxieneroa, hiruhilekoan 45m³. hartzeko eskubidea izanik.....18 euro

- Hiruhilekoan 45m³. baino gehiago.....0,60 euro/m³

c) Industrietarako hornidura:

- Hiruhilekoan har daitekeen gutxieneroa, hiruhilekoan 45m³. hartzeko eskubidea izanik..... 33 euro

- Hiruhilekoan 45m³. baino gehiago..... 1 euro/m³

d) Udal sarerako ur lotuneatiko eskubideak:

- Etxebizitzak eta lokalak 25 euro

- Komertzioak 35 euro

- Industriak eta obrak..... 150 euro

e) Kontadoreen mantenimendu-kanona, hiruhileko:

- Etxebizitzak eta lokalak, 0,75 euro/trim

- Komertzioak 4,75 euro/trim

- Industriak 7 euro/trim

f) Titularitate aldaketak7 euro

H. ZABORBILKETA

a) Egoiliarrek helbidetzat dauzkaten etxebizitzak, urteko 40 euro

b) Lokal komertzialak eta zerbitzuak, urteko 80 euro

c) Taberna, jatetxe, jolas-elkarte, janaridenda, arrandegi eta antzekoak, urteko.....100euro

d) Industriak:..... 126 euro

I. UDAL FRONTOIAREN ERABILPENA.

a) ordu edo frakzioko 3 euro

b) Pertsianak ordubetez erabiltzeagatik..... 2 euro

c) Argi-indarraren ordubeteko erabilera..... 4 euro

J. BIDE PUBLIKOAN GARABIA ZERBITZUAREN ERABILPENA.

- a) Ibilg. erretiratzegatik, eguneko ordutegian:50euro
b) Ibilg. erretiratzegatik, gaueko ordutegian: 70 euro

L. UDALAK IKASTARO MODUAN SUSTATZEN DITUEN DANTZA, PILOTA ETA JUDOKO AKTIBITATEAN PARTEHARTZEA

	ERROLDATUTAK	EZ ERROLATUTAK
DANTZA (3 urtetik aurrera).....	(53.65) 55euro	(80.47) 82,5euro
PILOTA(5 urtetik aurrera).....	55euro	82,5euro
JUDO(5 urtetik aurrera).....	55euro	82.5euro

M.- HAURTZAINDEGIAN IZENEMATEA

5.- Tasaren ordainketa:

- a) matrikula:
- lehen inskripzioa: 100euro
- bigarren inskripzioa: 60euro
b) hileroko kuota: 25euro

Hileroko kuotak hilaren lehenengo bost egunetan ordainduko dira.

UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO PROBETXAMENDU

BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.

ERANSKINA

A. HESIAK, ALDAMIOAK, EUSTAGAK ETA HONDAKINAK EDO MATERIALEAK GORDETZEKO EDUKINONTZIAK

- a) *Eustagak mota guztietako obretan*
- *m2ko edo honen zatiko eta egun edo honen zatiko..... 0,1euro*
- b) *Bide publikoan jarritako aldazio fijoetan ezarritako babesak, hauen azpitik libreki ibiltzea galeraz dezaten euskarri edo erriostrekin.*
- *m2ko edo honen zatiko eta egun edo honen zatiko..... 0,2euro*
- c) *Babes berdina aldazioak erlaizean jarri egon daitezkeenean, 3 m. baino altuera haundia goan, bide publiko gainean jarri gabe, hauen azpitik libreki ibil daitezkeelarik.*
- *m2ko edo honen zatiko eta egun edo honen zatiko..... 0,15euro*
- d) *Zintzilikako aldazioak, hesirik gabe.*
- *m2ko edo honen zatiko eta egun edo honen zatiko..... 0,15 euro*
- e) *Hesiak kanpoko eustagak.*
- *Bakoitzeko eta eguneko edo honen zatiko..... 0,6euro*
- f) *Hondakinak edo materialeak gordetzeko edukinontziak.*
- *m2ko edo zatikiko eta egun edo zatikiko..... 0,50euro*

B. ESPALOIEN GAINETIK ETXALDETARA IRISTEKO IBILGAILUEN SARRERA ETA BERAUEN APARKAMENDU ERRESERBA.

- a) *Garaje publiko edo indrustri edo merkataritza establezimendu:*
- *Metro linealeko edo zatia eta urteko edo zatia 100euro*
- b) *Zerbitzu partikularreko garajeak*
- *Metro linealeko edo zatia eta urteko edo zati..... 45euro*
- c) *Noizik behineko beharraren ondorioz erabilera ezberdinetarako leku erreserba.*
- *Metro linealeko edo zatia eta eguneko edo zatia..... 1,30 euro*

C. FERI ETA HERRI FESTETAKO POSTUAK

- a) *Txoznak.....30euro*
- b) *Txurrerriak, m2ko edo honen zatiko:6euro*

- c) *Pastel, karamelu, gozoki, fruitu lehor, patata frijitu bitxikeri, jostailu, liburu etabar saltzeko txabolak*
- *m2ko edo honen zatiko..... 6euro*
- d) *Tiro, anila eta bestelako jokuetako txabolak.*
- *m2ko edo honen zatiko..... 12euro*
- e) *Tonbola, errifa, salmenta azkarra eta antzekoak*
- *m2ko edo honen zatiko..... 12euro*
- *Kulunpio, egan egiten duten gailuak, kalesitak, zalditxo jokoak, bumpersak eta, orohar higitzen den ezein gailu mota*
- *m2ko edo honen zatiko..... 6euro*
- f) *Talka-autoen pistak.*
- *m2ko edo honen zatiko..... 4 euro*

E.-MAHAI, AULKI, BEILARI, ZOLADURA, LORAPOTE, EKITAKO EDO ANTZEKO INSTALAKUNTZAKO IHARDUERA

- a) *25 m² arte, urtean..... 200euro*
- b) *25 m² baino gehiago, urtean..... 300euro*

F. ASTEROKO MERKATUA:

Segidan zerrendatzen diren postu hauen instalazioa, eguneko, ondorengo ordainketak medio:

- a) *Baserriko barazkiak:*
- *Metro lineal bakoitza..... 0.3 euro*
- *Loreak, haziak, eta eratorriak*
- *Metro lineal bakoitza.....2.7 euro*
- b) *Urdaiazpiko, txerriak orohar, gazta eta gurinak:*
- *2,9m x 2m.ko lurzatia.....6.7 euro*
- c) *Oliba, pepintxo eta antzekoak:*
- *2,9m x 2m.ko lurzatia.....3.4 euro*
- d) *Baserrikoak ez diren barazkiak, hala nola, baratxuri, patatak, fruta ezberdinak, meloiak eta antzekoak:*
- *2,9m x 2m.ko lurzatia.....5.euro*
- e) *Fruitu lehorrak, pasak, pikuak, urrak, almendrak eta antzekoak, arraultza salmenta ere:*

- 2,9m x 2m.ko lurzatia..... 2.4euro
- f) *Pastak, gailetak, gozotegia orohar:*
 - 2,9m x 2m.ko lurzatia..... 5.euro
- g) *Txoriak, arrainak, hesibarruko animali txikiak, kaiolak, arrainontziak eta aipatu animalientzako janariak:*
 - 2,9m x 2m.ko lurzatia..... 3.4euro
- h) *Liburu, aldizkari, egunkari eta eta antzekoen salmenta:*
 - 2,9m x 2m.ko lurzatia..... 2euro
- i) *Kasetak, diskak eta antzekoen salmenta:*
 - - 2,9m x 2m.ko lurzatia 3.4euro
- j) *Larrukiak, bitxikeria, kuadroak, jostailuak eta oparitutako gaiak:*
 - 2,9m x 2m.ko lurzatia..... 3.4euro
- k) *Nekazal lanabesak eta makinaria:*
 - 2,9m x 2m.ko lurzatia..... 2euro
- l) *Alfonbrak, tapizak, koltxoak, ohialak, jantziak orohar:*
 - 2,9m x 2m.ko lurzatia..... 6.7euro
- m) *Oinetakoak:*
 - 2,9m x 2m.ko lurzatia..... 3.4euro
- n) *Sukalde tresneria, burdindegia, beireria, margoturiko paperak, euritakoak eta antzekoak:*
 - 2,9m x 2m. ko lurzatia..... 3.4euro
- o) *Enboteilaturiko edariak eta likorrak:*
 - 2,9m x 2m.ko lurzatia..... 6.7euro
- p) *Sagardoak eta txakolina:*
 - 2,9m x 2m.ko lurzatia..... 3.4euro”

Proposamena aztertu ondoren eta alkateak honen inguruko azalpenak eman ondoren, hurrengo interbentzioak izan dira:

EAJ-PNV/EA taldeko zinegotzia den Mikel Zubillaga jaunak hartu du hitza eta Kultura Batzordeak zera proposatzen duela dio: “Udalak ikastaro moduan sustatzen dituen dantza, pilota eta judoko aktibitateetan partehartzea” izeneko L atalean erroldatugabeen atala kentzea eta tarifa bakarra jartzea denentzat, 54 eurotakoa hain zuzen ere eta ez 55 Ogasun batzordetik proposatu bezala

Anoetako Sozialista Abertzaleak taldeko zinegotzia den Manu Odriozola jaunak, Mikel Zubillagak esandakoaren aritik, esan du erroldatugabeen klasifikazio hori desagertzea proposatzen dutela

Kultura batzordetik, Iruran ere horrela egin dutelako eta Irurarekin martxan jarri den lan ildo berrian komentatzen ari dirala herrian erroldatugabeak direnekin horrelako diferentziarik ez egiteko aukeran.

EAJ-PNV/EA taldeko zinegotzia den Rafael Uribarren jaunak, igogailuaren instalazio kasurako aurrirakosten den bonifikazioaren kasuan, honek suposatuko lituzkeen obrak ere hartu behar dirala kontuan dio, ez soilik igogailua instalatzea. Zehaztu beharko liratekeela zeintzuk diran obra horiek, igogailua jartzearekin datozenak izango dirala beti ere. .

Era berean, esan du ere etxeetako erreabilitazio lanen kasuetarako dauden dirulaguntzen inguruan ere jendea informatu beharko lukeela Udalak

Anoetako Sozialista Abertzaleak taldeko zinegotzia den Pedro M^a Peñagarikanok erantzun dio normalean informazio hori ematen dela, aparejadoreak bere txostenetan aipatzen duela eta zenbait kasutan obretan ere esan izan duela.

Uribarren jaunak dio eskatzera etortzerakoan bai baina eskaera egin aurretik ere informazioa prest izan beharko litzatekeela.

Anoetako Sozialista Abertzaleak taldeko Manu Odriozolak dio irizpidea oso egokia iruditzen zaiola baina horrelako edo antzeko irizpideren bat baserri mundurako ere hartu beharko litzatekeela, batez ere kontuan hartu ezkerro Anoetan eta oro har baserriek duten egoera.

Pedro M^a Peñagarikanok dio hauek obretarako tasa erdia ordaintzen dutela eurek egindako eskarien ondorioz eta %95 eko bonifikazioa izateko aukera gehiago landu beharko litzatekeela dio.

Alkateak hitza hartu du eta kasu hauetan zehaztu egin beharko litzatekeela bonifikazio edo laguntza horren erabilera edo helburua zein dan eta zein irizpide jarraitu, kontuan hartuz mantenimendurako den edo esplotaziorako den. Dena den, aldaketarik sartzekotan sendoagoa beharko lukeela dio.

Pedro M^a Peñagarikanok adierazten du agian mereziko lukeela aldaketaren bat egiteakbera ados dagoela proposamenarekin baina gehiago aztertu eta zehaztu beharko litzatekeela dio, zein obretarako eman eta zeinetarako ez...

EAJ-PNV/EA taldeko Uribarren jaunak dio ezin dutela tratamendu bera izan esplotaziorako diran konponketek edo beste gauza baterako diranek.

Erabakia

Udalbatzarrak ahobatez honako erabakia hartu du:

Lehenik: 2003. urteko Udal ordenantza fiskaletarako Ogasun Batzordeak proposaturiko aldaketak onartzea, Kultura Batzordeak “Udalak ikastaro moduan sustatzen dituen dantza, pilota eta judoko aktibitateetan partehartzea” atalerako proposaturiko aldaketarekin.

Bigarrenik: Ordenantza fiskalaren aldaketak jendaurrean jartzea 30 egunetan zehar gutxienez eta jendaurreko erakusketaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki taulan publikatzea.

Hirugarrenik: Jendaurreko erakusketaren epea bukatu ondoren, erreklamazioak aurkeztu ezker, espedientea berriz ere Osoko Bilkurara eramatea aurkezturiko erreklamazioei buruz ebatzi dezan eta behin betiko erabakia har dezan.

Laugarrenik: Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, orduarte behin behinekoa zen erabakia behin betikotzat hartuko da.

Bostgarrenik: Behin betiko akordioa edo izaera hori eman zaion behin behineko akordioa eta ordenantzen aldaketen testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatuko dira, indarrean sar dadin.

5.- Jubilatuen elkarteko diru eskaerari buruzko proposamenaren onarpena.

Alkate jaunak azaldu du Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak eginiko proposamena, bere adostasuna azalduz eta bertan eskaturiko kopuruaz gain aurrekontuan horretarako aurrikusita dagoen diru kopuru guztia emateko proposamena egin du.

Ondoren Maite Aizpurua Batzordeburuari eman dio hitza honek hobeki azaldu dezan proposamena

Batzordeko kidea den Manu Odriozola jaunak ere azaldu du proposamenaren arrazoia eta aipatzen du lehen Foru Aldundiak ematen zuena orain Udalak emango duela baina nahi izanez gero, baldintza batzuk eska edo jar daitezkeela.

Pedro M^a Peñagarikanok hitza hartu du eta agian aktibitateen memoria bat eskatu beharko lizatekeela esan du baina ados dagoela alkateak eginiko proposamenarekin.

EAJ/PNV-EA taldeko Jose Ignacio Otermin eta Rafel Uribarren jaunek, alkateak eginiko proposamenarekin euren adostasuna azaldu dute.

Idazkari kontuhartzaileak espediente honen inguruan eginiko txostena ahoz azaltzen du:: Aurtengo aurrekontuan sarreraren atalean aurrikusita dagoen 1.383 eurotako kopurua, Foru Aldundiak egin behar zuena, ez denez jasoko, sarrera horri baja eman behar zaio. Era berean,, gastuen atalean kontzeptu honetarako aurrikusita dagoen 1382 eurotako kopuruari ere jasoko ez diren sarrerak kendu behar zaizkio. Beraz, akordio hau hartu aurretik Toki Ogasunei buruzko 39/1988 Legearen 34 eta hurrengo artikuluetan zehazturiko kreditu aldaketako espedientea egin eta onartu behar da.

Erabakia:

Udalbatzarrak ahobatez honako erabakia hartu du:

Alkartasuna jubilatutako Elkartek eginiko eskaera onartzea eta 1382 eurotako dirulaguntza ematea baina aurretik idazkariak azaldutako prozedura jarraitzeari baldintzatua, erabakiak ez duelarik indarririk ez eraginik izango ospatzen den lehen osoko bilkuran kreditu aldaketa onartu arte.

Eta beste aztergairik ezean, alkate jaunak amaitutzat eman du bilkura, iluntzeko zortzirik eta hogeita minutu diranean. Guzti honetaz, nik Idazkariak, fede ematen dudalarik.

Nerea Etxebarria Atutxa

Idazkari Akzidentala

O.E

Jose Maria Sarasola Goenaga

Alkatea